

2019/03/23, 16:00

KOD.: 2316

A213 - A214 - A215

**LEHEN ARIKETA
LEHEN PROBA**

**Denbora, gehienez: 60 minutu.
Galderak: 60.**

EREDUA:	D
---------	----------

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. Aukera ezazu OKERREKOA:
 - a) Espainian bizi den pertsona orok ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar du. Hainbat udalerritan bizi denak urtean denbora gehien bizi den hartan bakarrik inskribatu behar du.
 - b) Udalerriko erroldan inskribatutako pertsonen multzoak osatzen du udalerriko auzoteria.
 - c) Udalerriko erroldan inskribatutakoak dira udalerriko auzotarrak.
 - d) Erroldan inskribatzeko unean bertan lortzen da auzotar izaera.

- 2.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, Legebiltzarraren legeak honako honek aldarrikatuko ditu:
 - a) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.
 - b) Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
 - c) Erregeak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
 - d) Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

- 3.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, autonomia-erkidegoak eskumen eskusiboa du gai hauetan:
 - a) Garapen komunitarioa. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.
 - b) Merkataritza-burtsak eta merkantziak eta balioak kontratatzeke gainerako zentroak, merkataritza-legediarekin bat etorri.
 - c) Farmazia-antolamendua, Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, eta higiena, Estatutuaren 18. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz.
 - d) Jabetza intelektuala eta industrial.

- 4.- Euskadiko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskadiko botereak honen bitartez egikarrituko dira:
 - a) Legebiltzarra
 - b) Jaurlaritza
 - c) Lehendakaria
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 5.- 7/1985 Legearen 94. artikulua arabera, toki-administrazioko funtzionarioen urteko lanaldia...
 - a) Estatuko administrazio zibileko funtzionarioentzat finkatzen den bera izango da.
 - b) autonomia-erkidegoko administrazioko funtzionarioentzat finkatzen den bera izango da.
 - c) administrazio bakoitzaren negozio kolektiboan erabakitzen dena izango da.
 - d) Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) negozio kolektiboan erabakitzen dena izango da.

- 6.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aplikazio-eremua hau da:
 - a) 250.000 biztanletik gorako udalerrak.
 - b) Probintzia-hiriburuak, hiriburu autonomikoak eta erakunde autonomikoen egoitza direnak.
 - c) 75.000 biztanletik gorako udalerrak, zirkunstantzia ekonomiko, sozial, historiko edo kultural bereziak dituztenak.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 7.- Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, alkateari dagokio...
- Udalbatzaren eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuretarako deialdia egin eta horietan buru izatea, eta, berdinketarik gertatuz gero, kalitateko botoarekin erabakitzea.
 - Udaltzaingoaren buru izatea.
 - Udala ordezte.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 8.- Konstituzioaren 22. artikulua babesean eraturako elkarteei gagozkielarik:
- Erregistroan inskribatu behar dira, publizitate-ondoreetarako bakarrik.
 - Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun-ondoreetarako bakarrik.
 - Ez da nahitaezkoa inskribatzea.
 - Erregistroan inskribatu behar dira, eraginkortasun- eta publizitate-ondoreetarako.
- 9.- Espainiako Konstituzioaren 18. artikuluan ezarritakoaren ildotik, eskubide hau bermatzen da:
- Ohorea eta norberaren eta familiaren intimitatea zaintzeko eskubidea.
 - Norberaren irudirako eskubidea.
 - Posta-komunikazioen sekretua bermatzeko eskubidea.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 10.- Baieztapen hauetatik, zein da zuzena, Espainiako Konstituzioaren arabera?:
- Guztiak dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntza-askatasuna aitortzen da.
 - Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea bermatzen dute, hauen seme-alabek heziketa erlijioso eta morala har dezaten, beraien uste sendoei dagokien bezalaxe.
 - Pertsona fisiko eta juridikoei ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen zaie, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 11.- Hemen dago jasota erlijio-askatasunerako eskubidea:
- Konstituzioaren 14. artikuluan.
 - Konstituzioaren 25. artikuluan.
 - Konstituzioaren 27. artikuluan.
 - Konstituzioaren 16. artikuluan.
- 12.- Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.
- Enplegatu publiko dira interes orokorrak zaintzeko zereginetan Herri Administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak.
 - Enplegatu publiko dira interes orokorrak zaintzeko zereginetan Herri Administrazioetan ordaindutako edo ordaindu gabeko eginkizunak betetzen dituztenak.
 - Enplegatu publiko dira gobernu-organoak zaintzeko zereginetan Herri Administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak.
 - Beren zerbitzuak Estatuko administrazioan eskaintzen dituzten pertsona guztiak jotzen dira enplegatu publikotzat.
- 13.- Udalerriko partaidetza-organo guztiak ordezkatzeko dituen foroari honela deitzen zaio:
- Elkargunea
 - Auzogunea
 - Gizarte Kontseilua
 - Herritarren txanda

14.- Herritarrei laguntzeko bulegoak...

- a) aurrez aurreko arreta emateko bide dira.
- b) informazio- eta kudeaketa-zerbitzuak ematen dituzte.
- c) udal erregistro gisa dihardute.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

15.- Gimnasia-fosoa dago honetan:

- a) Mendizorrotzeko pabilioia
- b) San Andreseko kiroldegia
- c) Arriagako kiroldegia
- d) Ariznabarreko kiroldegia

16.- Rokodromoa dago honetan:

- a) Ariznabarreko kiroldegia
- b) Aranaldeko kiroldegia
- c) Mendizorrotzeko pabilioia
- d) Olaranbeko kiroldegia

17.- Udalaren ordezkariak izendatzea honen eskumena da:

- a) Osoko bilkura
- b) Alkatea
- c) Eledunen Batzarra
- d) Funtzio Publikoaren Batzardea

18.- Alkatearen zeregina da:

- a) Udaltzaingoaren buru izatea.
- b) Udalbatza arautzea.
- c) Aurrekontu-proiektu onestea.
- d) Lanpostuen zerrenda onestea.

19.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuen Babeserako 2016/679 Araudi Orokorraren arabera, interesdunaz, tratamenduaren arduradunaz, tratamendu-eragileaz eta tratamenduaren arduradunaren edo eragilearen agindupean datuak tratatzeko baimena duten pertsonen beste edozein pertsona fisiko edo juridiko, agintari publiko edo erakunderi honela deitzen zaio:

- a) Hirugarrena
- b) Hartzailea
- c) Arduraduna
- d) Tratamendu-eragilea

20.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen aplikazio-arauak —VI. titulua—, hauei aplikatuko zaizkie:
ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Udal-enpresa publikoei, artikulua honetan aurreikusitako erakundeek ehuneko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- b) Arabako lurralde historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- c) Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edo nagusitasunetzko lekua toki-erakunde batek badu.
- d) Udalerriei.

21.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio-eskuratzea honela egingo da:

- a) Bide elektronikoz bakarrik.
- b) Nagusiki, bide elektronikoz.
- c) Nagusiki, bestelako bitartekoen bidez.
- d) Edozein bitartekoren bidez, kasu guztietan.

22.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazioa eskuratzeko eskabidea arrazoitzea...

- a) Nahitaezkoa da, beti.
- b) Ez da nahitaezkoa.
- c) Zein informazio eskatzen den, horren mende egongo da.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

23.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legeko printzipio orokorra da:

- a) Tratu-berdintasuna.
- b) Dibertsitatearen errespetua.
- c) Diferentziaren errespetua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

24.- Aukera-berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako printzipio orokor gisa, hemen dago jasota:

- a) Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen 3. artikuluan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 25. artikuluan.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

25.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen ondorioetarako, ordezkaritza orekatua dagoela esan ahal izango da sexu bakoitzak...

- a) % 50eko ordezkaritza badu.
- b) gutxienez, % 40ko ordezkaritza badu.
- c) gutxienez, % 30eko ordezkaritza badu.
- d) Organo-motaren mende egongo da.

26.- Botere publikoen jarduna arautu eta bideratu behar duen printzipio da, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen arabera: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Ekintza positiboa
- b) Soldata-arrakala desagerraraztea
- c) Ordezkaritza orekatua
- d) Genero-ikuspegiaren integrazioa

27.- Gaia edo lurraldea dela-eta nabarmenki eskumenik ez duen organoak emandako egintzak, 39/2015 Legearen arabera,...

- a) erabat deusezak dira.
- b) deuseztagarriak dira.
- c) baliozkotu daitezke.
- d) delitu izan litezke.

28.- Egintza hauetatik zeinetan ez dago arrazoitzeko obligaziorik, 39/2015 Legearen arabera:

- a) Epeak luzatzeko direnak.
- b) Eskubide subjektiboak mugatzen dituztenak.
- c) Organo aholku-emaileen irizpenetara egokitzen direnak.
- d) Aurreko jardunetan erabilitako irizpidearekin bat ez datozenak.

29.- Besterik xedatzen ez bada, epeak ordutan adierazten badira:

- a) Egun baliiodunak direla ulertuko da.
- b) Baliiodunak dira egun baliiodun bateko ordu guztiak.
- c) Ez dago ordukako epe-zenbaketarik.
- d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

30.- 39/2015 Legearen arabera, administrazio-prozedura baten ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, prozedura arautzen duen arauak adierazten ez badu, hau izango da:

- a) hiru hilabete
- b) bi hilabete
- c) hilabete
- d) urtebete

31.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, langile guztien hautaketa, funtzionarioak nahiz lan-kontratadunak izan, enplegu-eskaintza publikoaren bitartez egin behar da,

- a) deialdi publikoaren bitartez.
- b) lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa askearen bitartez.
- c) berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz, baita publikotasun-printzipioa ere.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

32. Erabat deusezak izango dira administrazio publikoen egintzak baldin eta:

- a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.
- b) Ezinezko edukia badute.
- c) Zigor-zuzenbideko arauak hausten badituzte edo horrelako arau-hausteen ondorioz eman badira.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

33.- 39/2015 Legearen arabera, jakinarazpen oro epe honetan egin beharko da:

- a) Hamar eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- b) Hamabost eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- c) Hilabeteko epean, egintza ematen den egunetik.
- d) Zortzi eguneko epean, egintza ematen den egunetik.

34.- 39/2015 Legearen arabera, prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabete izango da gehieneko epea. Epe hori eta aurreko atalean adierazitakoak honela zenbatuko dira:

- a) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, eskaera bidali den egunetik aurrera.
- b) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen administrazio edo erakundearen erregistro elektronikoan eskaera sartu den egunetik aurrera.
- c) Interesdunak eskaturik hasitako prozeduretan, izapidetzeko eskumena duen sailean eskaera sartu den egunetik aurrera.
- d) Ez dago gehieneko eperik.

35.- 39/2015 Legearen aplikazio-eremu subjektiboak hauek hartzen ditu:

- a) Estatuaren Administrazioa bakarrik.
- b) Autonomia Erkidegoko Administrazioa bakarrik.
- c) Sektore publiko instituzionala bakarrik.
- d) Aurreko hirurak, baita toki-administrazioa osatzen duten erakundeak ere.

36.- Hemen dago araututa karrerako funtzionarioaren izaeraren galera:

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 60. artikuluan.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 55. artikuluan.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 63. artikuluan.
- d) Funtzionario-izaerari eutsi egiten zaio beti, erretirora arte.

37.- Udal erroldan inskribatzean, datu hauek bakarrik jasoko dira nahitaez: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Sexua
- b) Arraza
- c) Eskola-ziurtagiria edo titulua
- d) Jaiolekua

- 38.- 7/1985 Legearen 13. artikulua araber, udalerrak sortu edo ezabatzea, baita udal-mugarteak aldatzea ere,...
- toki-araubideari buruzko autonomia-erkidegoetako legediak arautuko du, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko.
 - toki-araubideari buruzko Estatuko legediak arautuko du, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko.
 - toki-araubideari buruzko Estatuko legediak arautuko du, baldin eta udal-mugarteak aldatzeak probintzietako mugak aldatzea ekarriko badu.
 - Ez dago udal-mugarteak aldatzerik.
- 39.- Ordenamendu juridikoaren iturriak dira: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA
- Legea
 - Jurisprudentzia
 - Ohitura
 - Zuzenbidearen printzipio orokorrak
- 40.- Legeek...
- atzera-eraginezko ondoreak izango dituzte.
 - ez dute inoiz atzera-eraginezko ondorerik izango.
 - ez dute atzera-eraginezko ondorerik izango, salbu eta bertan kontrakoa xedatzen bada.
 - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 41.- Pertsona fisikoen lege pertsonala hemen dago araututa:
- Kode Zibilaren 9. artikulua.
 - Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 9. artikulua.
 - Euskadiko Toki Erakundearen Legearen 9. artikulua.
 - Konstituzioaren 9. artikulua.
- 42.- Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko betebeharrak dira:
- Espainiar nazionalitatea edukitzea, beti eta kasu guztietan.
 - Eskatutako titulazioa izatea.
 - 18 urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.
 - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 43.- Nahitaezko gaitasun-probez gain lehiakideen merezimenduen balioespina egiten delarik hautaketa-prozesuetan...
- neurri batera arteko puntuazioa baino ezingo da eman, eta ez du inoiz ere horrek bakarrik hautaketa-prozesuaren emaitza erabakiko.
 - puntuazio osoaren ehuneko 30etik beherako puntuazioa bakarrik eman ahal izango da, balioespen horretan.
 - gehienez puntuazio osoaren ehuneko 50eko puntuazioa eman ahal izango da, balioespen horretan.
 - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 44.- Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bateratuaren arabera, jokabide-printzipioak dira:
- Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jartzea, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak.
 - Beren prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta edukitzea.
 - Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratzea, eta norberaren edo hurbilekoen mesederako ez erabiltzea. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharrak ere izango dute.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 45.- Gasteizko Udaleko prebentzio-plana onestea honi dagokio:
- Udalbatza
 - Tokiko Gobernu Batzarra
 - Segurtasun eta Osasun Batzordea
 - Funtzio Publikoko zinegotzia

46.- Gasteizko Udaleko Prebentzio Zerbitzuaren zereginak dira:

- a) Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko araudia betetzen den zaindu eta kontrolatzea.
- b) Laneko Arriskuen Prebentziorako Plana diseinatu, ezarri eta aplikatzea.
- c) Langileen prestakuntza eta informazioa.
- d) Prebentzio Planean jasotako dokumentazioa ezagutu eta horri buruzko txostena egitea.

47.- Arriskuei benetan aurrea hartzeko metodo eta prozedurekin lotutako ekimenak sustatzea, Gasteizko Udalean, honen zeregina da:

- a) Segurtasun eta Osasun Batzordea
- b) Langileen Batzarra
- c) Prebentzioko ordezkariak
- d) Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua

48.- Tokiko Gobernu Batzarraren zeregina da: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Aurrekontua onestea.
- b) Edozein lizentzia-mota ematea, salbu eta sektoreko legediak berariaz beste organo bati aitortzen badio.
- c) Kudeaketa ekonomikoaren garapena.
- d) Lanpostuen zerrenda onestea.

49.- Herritarren proposamenak eztabaidatu eta lantzeko organoak dira auzoguneak. Gaur egun,...

- a) gizarte-etxe bakoitzeko bana dago.
- b) administrazio-batzar bakoitzeko bana dago.
- c) zazpi daude.
- d) hamar daude.

50.- Toki-administrazioari dagozkio, berdintasunaren arloan, besteak beste zeregin hauek:

- a) Sustapen-neurriak ezartzea, udalek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten.
- b) Eremu lokalean ekintza positiboko neurriak gauzatzea.
- c) Eremu lokalean emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira

51.- Foru-lurraldeen esparruan ekintza positiboko neurriak gauzatzea, honen zeregina da:

- a) Lurralde horretako udal bakoitzeko administrazioa
- b) Foru-administrazioa
- c) Emakunde
- d) Autonomia Erkidegoko Administrazioa

52.- Genero Berdintasunerako IV. Planerako proposatutako erronkak dira, Gasteizko Udalean:

- a) Udalak bere politiken neutraltasun-eza onartzea.
- b) Indarkeria matxistaren prebentzioaren, arretaren eta erreparazioaren arloan duen erantzukizuna bere gain hartzen duen administrazioa.
- c) Ahalduntzeari laguntzen dioten baliabideak eta tresnak dituen hiria.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

53.- Bizitzarako eskubidea hemen dago jasota:

- a) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 15. artikuluan.
- c) Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan.
- d) Espainiako Konstituzioaren 54. artikuluan.

54.- Espainiako Konstituzioaren arabera, lurraldeari dagokionez, Estatu honela antolatzen da:

- a) Udalerriak
- b) Probintziak
- c) Autonomia-erkidegoak
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

55.- Autonomia-erkidegoen autogobernu-erakundeen antolakuntza hemen dago araututa:

- a) Espainiako Konstituzioaren 148. artikuluan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 155. artikuluan.
- c) Ez dago jasota autonomia-erkidegoek beren gain hartu beharreko eskumenen artean.
- d) Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluan.

56.- Euskadiko Autonomia Estatuaren arabera, nekazaritza eta abeltzaintzaren arloko eskumena...

- a) eskusiboa da
- b) garapen-eskumena da
- c) Estatuaren eskumena da
- d) gauzatze-eskumena da

57.- Eusko Jaurlaritzako lehendakaria:

- a) Legebiltzarrak hautatuko du bere kideen artean eta erregeek izendatuko.
- b) Diputatu eta senatariak hautatuko dute, eta erregeak izendatuko.
- c) Eusko Legebiltzarrak hautatu eta izendatuko du.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

58.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, hauen eskubidea da hautesle eta hautagai izatea:

- a) udalerriko auzotarrak
- b) udalerriko egoiliarak
- c) udalerrian etxebizitza dutenak
- d) udalerrian errota daudenak

59.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen arabera: ERANTZUN ZUZENA EDO OSOENA ADIERAZI

- a) Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero aurrekontu-plantilla onestea, aurrekontuaren bitartez.
- b) Toki-korporazio bakoitzari dagokio agintaldi bakoitzaren hasieran aurrekontu-plantilla onestea, aurrekontuaren bitartez.
- c) Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero lanpostuen zerrenda onestea, aurrekontuaren bitartez.
- d) Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero lanpostuen zerrenda onestea.

60.- Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen arabera, Gasteizko Udalak, biztanle-kopuruaren arabera, honako hauek sar ditzake bere plantillan:

- a) 27 aholkulari, zinegotziak adina
- b) gutxienez 27 aholkulari
- c) gehienez 25 aholkulari
- d) udal taldeek beharrezkotzat jotzen dituztenak